

Oñatiko EAJ-PNVk Segurtasun Mahaia sortzea eta asteburu gauetan Udaltzaingoaren zerbitzua aktibatzea proposatu du

- *Erostarbe: "Ezinbestekoa da Udaltzaingoaren zerbitzu bat izatea 24 orduetan, batez ere asteburu gauetan, segurtasun arriskuak eta beharrak handitzen direnean".*

Oñatiko EAJ-PNVren udal taldeak herriko segurtasuna hobetzeko beharra mahai gainean jarri du berriro ere, asteburu gauetan Udaltzaingoaren presentzia falta azpimarratuz. Udaltzaingoaren zerbitzua egunez eskuragarri dagoen arren, asteburuetan ez dago gaueko estaldurarik, eta horrek kezka eragiten dio alderdi jeltzaleari.

"Ezinbestekoa da Udaltzaingoaren zerbitzu bat izatea 24 orduetan, batez ere asteburu gauetan, segurtasun arriskuak eta beharrak handitzen direnean. Ordu horietan poliziaren presentzia ezak kezka sortzen du oñatiarren artean, une oro babestuta sentitzea merezi baitute", adierazi du Amaia Erostarbe EAJ-PNVren Oñatiko bozeramaileak.

Udal taldeak Ertzaintzarekiko lankidetzaren indartzearen garrantzia ere azpimarratu du, hala eskatzen duten egoeretan koordinazio arina bilatuz. "Oñati udalerrri aktiboa da, biztanleria askotarikoa eta dinamismo handikoa. Beharrezkoa da Ertzaintzarekin lankidetzaren indartzea, edozein larrialdi egoerari berehala erantzuteko eta guztion segurtasuna bermatzeko", gaineratu du bozeramaileak.

EAJ-PNVk proposatu du Udalean Segurtasun Mahaia bat sortzea EH Bilduren Udal Gobernuarekin, eta asteburuetan, gauetan barne, poliziaren zerbitzu zabalpena eskutik lantzea. "Segurtasunak lehentasuna izan behar du. Oñatik udaltzaingo zerbitzu indartsua merezi du, gehien behar denean eskuragarri egongo dena", amaitu du Erostarbek.